# euskadikomuseoak etabildumak 2014

estatistika-txostena



EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

# Aurkibidea

**Aurkezpena** **3**
**Metodologia** **4**

**1. Euskadiko Museo-Eskaintza: Oinarrizko Elementuak** **5**
1.1. Euskadiko Museo eta Bildumen kokapena 5
1.2. Museo eta Bilduma tipologia 5
1.3. Titulartasuna eta figura juridikoa 6
1.4. Kudeaketa-mota 8
1.5. Eratutako urtearen araberako antzinatasuna 9
1.6. Lagunen elkarteak 11

**2. Azpiegitura, Zerbitzuak eta Ekipamenduak** **13**
2.1. Eraikinaren ezaugarriak 13
2.2. Zerbitzuak eta ekipamenduak 15
2.3. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak 16

**3. Sarrera** **19**
3.1. Jendearentzako irekita egoten diren egunak eta sarrera-mota 19
3.2. Sarreraren ezaugarri ekonomikoak 20

**4. Museoen Jarduerak** **23**
4.1. Museo eta Bildumetan izandako bisitariak 23
4.2. Erakusketak eta beste jarduera batzuk 26
4.3. Argitalpenak 28

**5. Museoetako Langileak** **30**
5.1. Museo eta Bildumei atxikitako langileak eta horien lan-harremana 30
5.2. Langileen lanbide-kategoria 31
5.3. Langileen banaketa, sexuaren arabera 32
5.4. Lanaldi-mota 33

**6. Datu Ekonomikoak** **34**
6.1. Finantzazioa eta sarrerak 34
6.2. Museo eta Bildumen gastu 35

**7. Museo-Funtsak** **37**

**8. 2014ko Estatistika-Adierazleen Laburpena** **39**

**Eranskinak**

**I.** 2014ko estatistikan parte hartu duten Museoak eta Bildumak 42
**II.** Ikerketa egiteko erabilitako galdetegia 44

**Irudien aurkibidea** 56

## AURKEZPENA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren Museoen Zentroak, bi urterik behin, *Euskadiko Museo eta Bildumen Txostena* egiten du. Horren bidez, Euskadiko museoen sektoreari buruzko alderdi nagusiak aurkeztu nahi ditu eta, batez ere, urtea ixtean dauden datuak eguneratu.

Txosten honetan, 2014ko estatistikako emaitza nagusiak jasotzen dira. Hiru Lurralde Historikoetako 62 museok eta bildumak parte hartu dute, guztira.

Dokumentuak jasotzen dituen edukiak honako alderdi hauekin daude lotuta: museoen eskaintzaren ezaugarri nagusiak, azpiegitura, zerbitzu eta ekipamenduei buruzko gaiak, sarrera, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, erakunde horiek ikustera joaten den pertsona-kopurua, museoen jarduerak, giza baliabideak, museoetako datu ekonomikoak eta funtsak.

Egindako ikerketa oso baliagarria da Euskadiko museoen sektoreko egungo egoeraren panoramika integrala izateko, euskal kultura-eskaintzaren barruko azpiegituren ezaugarriak ezagutzeko eta beste lurralde-eremu batzuekin erkaketak egin ahal izateko informazio eguneratua edukitzeko.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu museo eta bildumetako arduradun eta taldeei; izan ere, haien laguntzarik gabe ezingo genukeen eskuratu ikerketa honetan bildu dugun informazioa.

# METODOLOGIA

## Erantzun-maila

Hiru Lurralde Historikoetako 62 Museo eta Bildumak emandako informazioa dago txostenean. 2014. urtean, guztira 66 museo zenbatu dira, alegia, erantzun-maila % 93,9 izan da. 1. eranskinean dago *2014ko estatistikan parte hartu duten Museoen eta Bildumen zerrenda*.

## Edukiaren egituraketa

Txosteneko kapituluak, batez ere, ikerketan baliatutako galde-sortako atalen arabera antolatu dira, eta honela egituratu dira: erakundeari buruzko datu orokorrak; azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua; sarrera; erakundearen jarduera; langileak; datu ekonomikoak; museoetako funtsak. 2. eranskinean, *Ikerketan baliatutako galde-sorta dago*.

## Emandako informazioa

Emandako informazioa osoa izan da; kasurik gehienetan, galde-sortako item guztiei erantzun zaie. Hala ere, grafiko edo taula guztietan ageri da erantzun-oinarria; hau da, aldagai bakoitzari zehazki erantzun dion erakunde-kopurua.

## Ikerketaren fitxa teknikoa

| | |
|---|---|
| Metodologia | Norberak betetako inkesta |
| Informazioa eskuratzeko tresna | Galdera itxidun galdetegia |
| Lortutako azken lagina | 62 museo eta bilduma |
| Informazioa biltzeko data | 2015eko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra |
| Ikertutako urtea | 2014 |
| Eremu geografikoa | Euskal Autonomia Erkidegoa |

# 1. EUSKADIKO MUSEO-ESKAINTZA: OINARRIZKO ELEMENTUAK

Kapitulu honetan, Euskadiko museo eta bildumen oinarrizko ezaugarriei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen da: kokapena, tipologia, titulartasuna, kudeaketa-modalitatea, antzinatasuna eta patronaturik edo lagunen elkarterik dagoen.

## 1.1. EUSKADIKO MUSEO ETA BILDUMEN KOKAPENA

Euskadiko museoen eskaintza handiagoa da Gipuzkoako Lurralde Historikoan, bertan baitago Museoen eta Bildumen erdia inguru (% 46,8). Gero Bizkaia dago, azpiegituren % 33,9rekin eta, azkenik, Araba, % 19,3rekin.

**1. irudia.** Museoak eta Bildumak, Lurralde Historikoen arabera (balio absolutua eta % ). 2014




| | % | Abs. |
|---|---|---|
| Araba/Alava | 19,3 | 12 |
| Bizkaia | 33,9 | 21 |
| Gipuzkoa | 46,8 | 29 |

Oinarria: 62 museo eta bilduma

## 1.2. MUSEO ETA BILDUMEN TIPOLOGIA

Euskal kultura-sarean, kultura-ondarearen arlo batzuetan espezializatuta dauden Museoak eta Bildumak nagusi direla ikusten da, museoetako eskaintzaren ia herena hartzen duela. Gero, zientziarekin eta teknologiarekin lotutako azpiegiturak daude (zientziaren eta teknikaren bilakaeraren adierazgarri diren objektuak dituzten azpiegiturak) eta museo eta bilduma historikoak (gertakari historikoak, pertsona ospetsuak... ). Pertsonaia baten jaiotetxean edo egoitzan eginiko museoetako espazioek (museo-etxeek) hartzen dute leku txikiena.

**2. irudia.** Museoak eta Bildumak, tipologiaren arabera (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Museoen eta Bildumen tipologiaren lurralde-analisiak erakusten du Araban eta Gipuzkoan azpiegitura espezializatuek dutela indarrik gehien. Bizkaian, espazioen tipologia hori ere nabarmenena da, baina garrantzia dute, halaber, museo historikoek eta arte ederretakoek.

**3. irudia.** Museoak eta Bildumak, tipologiaren eta Lurralde Historikoen arabera (% bertikala). 2014

| Tipologia | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|
| Arkeologikoa | 16,7 | 4,8 | 6,9 |
| Arte garaikidea | 8,3 | 4,8 | -- |
| Dekorazio-arteak | 8,3 | 4,8 | -- |
| Arte ederrak | 16,7 | 14,3 | -- |
| Museo-etxeak | -- | -- | 3,4 |
| Zientzia eta teknologia | -- | 14,3 | 13,8 |
| Natura-zientziak eta historia naturala | 8,3 | -- | 10,3 |
| Aztarnategiak | -- | 9,5 | 6,9 |
| Espezializatua | 25,0 | 19,0 | 27,6 |
| Etnografia eta antropologia | 16,7 | 4,8 | 6,9 |
| Orokorra | -- | 4,8 | 13,8 |
| Historikoa | -- | 19,0 | 10,3 |
| Beste batzuk | -- | -- | -- |

Oinarria: 62 museo eta bilduma

## 1.3. TITULARTASUNA ETA FIGURA JURIDIKOA

Titulartasun publikoa da nabarmenena, euskal museoen % 61,3k baitu; % 32,3 da titulartasun pribatukoa, eta % 6,4 titulartasun mistokoa.

**4. irudia.** Museoen eta Bildumen titulartasuna (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Titulartasun publikoko museo eta bildumen artean, tokiko administrazioa nabarmendu behar da figura juridiko gisa (batez ere aldundiak eta udalak), kasuen % 85etik gora. Pisu askoz ere txikiagoa dute Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta beste erakunde batzuek (enpresa publikoak, fundazio publikoak, unibertsitateek...).

**5. irudia.** Titulartasun publikoko Museoen eta Bildumen figura juridikoa (%). 2014




Oinarria: 38 museo eta bilduma

Enpresa pribatuen titulartasuna baino ez duten museo eta bildumen figura juridiko nagusia fundazioak dira. Beste figura batzuek (elizakoa, sozietatea, kide bakarrekoak, elkartea) pisu erlatibo txikiagoa dute.

**6. irudia**. Titulartasun pribatuko Museoen eta Bildumen figura juridikoa (% ). 2014

| Figura juridikoa | Guztizkoaren % |
|---|---|
| Fundazioa | 60,0 |
| Elizakoa | 5,0 |
| Sozietatea | 5,0 |
| Kide bakarrekoak | 5,0 |
| Elkartea | 15,0 |
| Beste batzuk | 10,0 |

Oinarria: 20 museo eta bilduma

## 1.4. KUDEAKETA-MOTA

Titulartasunarekin ez bezala, askoz ere handiagoa da kudeaketa erakunde pribatuen esku duten museoen kopurua, zehazki % 50ekoa, eta kudeaketa erakunde publikoen esku dutenak, % 43,5.

**7. irudia.** Museoak eta Bildumak kudeatzen dituzten erakundeak (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Antolaketako eta kudeaketako jarduera pribatu ugari fundazioei dagokie (% 48,5). Errepresentazio gutxiago dute beste figura juridiko batzuek, besteak beste, sozietate, elkarte, elizako eta kide bakarrekoek.

**8. irudia.** Museoen eta Bildumen erakunde kudeatzaile pribatuak (%). 2014

| Erakunde pribatuak | Guztizkoaren % |
|---|---|
| Fundazioa | 48,5 |
| Sozietatea | 16,1 |
| Elkartea | 16,1 |
| Elizakoa | 3,2 |
| Kide bakarrekoak | 3,2 |
| Beste batzuk | 12,9 |

Oinarria: 31 museo eta bilduma

Kudeaketa publikoa egiten duten erakundeak direla eta, adierazi beharra dago toki-administrazioa dela museoetako jarduera gehienak kudeatzeko ardura duena; zehazki, udalen, aldundien eta beste erakunde batzuen bidez.

**9. irudia.** Museoen eta Bildumen erakunde kudeatzaile publikoak (%) 2014




Oinarria: 27 museo eta bilduma

## 1.5. ERATUTAKO URTEAREN ARABERAKO ANTZINATASUNA

Euskadiko museo eta bildumen batez besteko antzinatasuna 29,1 urtekoa da (jendearentzako zabaldu zen urteko datuen arabera). Museoen sektorearen zati handi bat azken 25 urteotan eratu da: % 16,1 sortu berriak dira (10 urtetik behera), eta % 50,0, berriz, duela 10-25 urte ireki zen. Hala ere, museoen %35ek 25 urtetik gorako antzinatasuna du.

**10. irudia.** Museoen eta Bildumen antzinatasuna (irekiera-urtearen arabera, %). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Lurralde Historikoaren arabera, 25 urtetik gorako antzinatasuneko museo eta bilduma gutxien Gipuzkoak du, alegia, eraketa-profil berriena duen lurraldea da (batez besteko adina 20,9; Araban, beirriz, 24,7, eta Bizkaian ia 40).

**11. irudia.** Museoen eta Bildumen antzinatasuna, Lurralde Historikoaren arabera (irekiera-urtearen arabera, % bertikala). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

## 1.6. LAGUNEN ELKARTEAK

Ikerketan parte hartu duten museo eta bilduma guztietatik, % 30,6k lagunen elkarteei laguntzeko formula dute.

**12. irudia.** Museoak eta Bildumak, lagunen elkartea izatearen arabera (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Arte garaikideko museo guztiek dute lagunen elkartea. Laguntzarako formula hau hedatuago dago zientzia eta teknologiako museoetan eta dekorazio-arteko museoetan. Ez daude natura-zientzien eta historia naturalaren espazioetan eta museo-etxeetan.

**13. irudia.** Lagunen elkartea duten Museoak eta Bildumak, tipologiaren arabera (%). 2014




Oinarria: 19 museo eta bilduma

Lagunen elkarteak nabarmen hedatuago daude Bizkaian; bertan, erakundeen % 47k laguntzarako formula hori du, eta Gipuzkoan erakunde guztien % 42,1ek. Arabak du lagunen elkartedun museo gutxien.

**14. irudia.** Lagunen elkartea duten Museoak eta Bildumak, Lurralde Historikoaren arabera (%). 2014




Oinarria: 19 museo eta bilduma

# 2. AZPIEGITURA, ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Kapitulu honetan, museo eta bildumen eraikinen ezaugarri nagusiak aztertu dira, bai eta horien ekipamendua eta egun ematen dituzten zerbitzuak ere. Gainera, erakundeek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea azpimarratzen da.

## 2.1. ERAIKINAREN EZAUGARRIAK

Ikerketan parte hartu duten Museoak eta Bildumak batez beste 187 urteko antzinatasuna duten eraikinetan daude. Euskadiko museo gehienak 1951. urtetik gaur egun arte eraikitako eraikinetan daude. Hala ere, nabarmendu beharra dago, halaber, handia dela 1900. urtea baino lehenagoko eraikin historikoetan dagoen erakunde-kopurua.

**15. irudia.** Museo eta Bildumen eraikinen eraikuntza-urtea (%). 2014




Batez besteko antzinatasuna: **186,8 urte**

Oinarria: 55 museo eta bilduma

Garrantzitsua da azpimarratzea azken urteotan egin diren zaharberritzeak eta birgaitzeak, izan ere, 2000. urtearen ondoren zaharberritu dira museoen % 83,3.

**16. irudia.** Museoak eta Bildumak eraberritu ziren azken urtea (%). 2014




Oinarria: 54 museo eta bilduma

Museo eta bilduma gehienak beste helburu batzuetarako egindako eraikinetan daude, baina, gerora, eraberritu egin dira gaur egungo jardunerako (% 64,5). % 24,2 baino ez dira hasieratik museo izateko sortuak, eta % 11,3 bi aukeretarako eraiki ziren.

**17. irudia**. Museoak eta Bildumak eraikin-motaren arabera (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Kasurik gehienetan museoa eraikin bakarrean dago, nahiz eta % 30 inguruk bi eraikin edo gehiagotan burutu jarduera.

**18. irudia.** Museoak eta Bildumak, eraikin-kopuruaren arabera (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Ikerketari erantzun dioten museoen eta bilduma museografikoen batez besteko azalera 3.239 $m^2$-koa da, eraikineko. Museoetarako erabilitako azalera osoaren (191.130 $m^2$) datu metatua kontuan hartuta, herritarren arabera, Euskadin, 1.000 biztanleko museoaren azalera 88 m2-koa da[1].

**19. irudia.** Museoen eta Bildumen batez besteko azalera erabilgarria, tipologiaren arabera (balio absolutua, $m^2$). 2014

| Tipologia | Azalera erabilgarria ($m^2$) |
|---|---|
| Arte garaikidea | 18.750 |
| Zientzia eta teknologia | 7.530 |
| Orokorra | 3.878 |
| Arte ederrak | 3.746 |
| Espezializatua | 1.883 |
| Etnografia eta antropologia | 1.793 |
| Aztarnategiak | 1.671 |
| Dekorazio-arteak | 1.530 |
| Historikoa | 1.193 |
| Arkeologikoa | 1.133 |
| Museo-etxeak | 450 |
| Natura-zientziak eta historia naturala | 345 |
| Museo/bilduma bakoitzeko batez besteko azalera | 3.239 |
| MUSEOETARAKO AZALERA, GUZTIRA | 191.130 |

Oinarria: 59 museo eta bilduma

Arte garaikideko museoek batez besteko azalera erabilgarri gehiago dute gainerako museoek baino, zehazki, 18.750 $m^2$. Ordea, natura-zientzien eta historia naturalaren museo eta bildumek eta museo-etxeek dute dimentsio txikiena (500 $m^2$-tik behera).

## 2.2. ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Museoek eta bildumek eskainitako ekipamendu eta zerbitzuei dagokienez, adierazi beharra dago instalazioetan eskaintza handiagoa sartu dela. Eskaintzen dituzten zerbitzuen artean, ia guztiek dituzte instalazioetara bertaratzen direnentzako bisita gidatuak, erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa, liburuxkak etab. Neurri txikiagoan, beste zerbitzu batzuk eskaintzen dira, besteak beste, desgaitasunen bat duten pertsonentzako informazioa, espazioen alokairua jasangarritasun-baliabide gisa, ingurumen-kontrola eta euskarri elektronikoko gidak.

1. EAEko biztanleria, 2014ko datuen arabera, 2.172.877 lagunekoa da (Iturria: Eustat. Adierazle demografikoak eta herritarren udal-estatistika).

**20. irudia.** Museoak eta Bildumak, zerbitzu- eta ekipamendu-baliabideen arabera (%). 2014

| | Baliabideak | Museoen % |
|---|---|---|
| ZERBITZUAK | Bisita gidatuak | 96,8 |
| | Erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa | 96,8 |
| | Bestelako informazioa (liburuxkak...) | 88,7 |
| | Hirugarrenei espazioak alokatzea | 48,4 |
| | Desgaitasunen bat duten pertsonentzako informazio irisgarria | 45,2 |
| | Ingurumen-kontrola | 35,5 |
| | Gidak euskarri elektronikoan (audiogidak/zeinugidak) | 30,6 |
| EKIPAMENDUA | Aretokoak (panelak, aretoko orria, etab.) | 96,8 |
| | Desgaitasunen bat dutenentzako sarbidea | 83,9 |
| | Saltokia/Liburutegia | 72,6 |
| | Jarduera didaktikoetarako lekua | 71,0 |
| | Ikus-entzunezko gela | 64,5 |
| | Liburutegia | 64,5 |
| | Ekitaldi-aretoa | 53,2 |
| | Ikertzaileen aretoa | 40,3 |
| | Aparkaleku publikoa | 38,7 |
| | Zaharberritzeko tailerra | 35,5 |
| | Kafetegia/Jatetxea | 24,2 |
| | Argazkigintza-laborategia | 6,5 |

Oinarria: 62 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Ekipamenduak direla eta, batez ere aretoko informazio orientatzailea (panelak etab.) eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako sarbideari buruzko informazioa dago eskuragarri. Halaber, garrantzitsua da denda/liburu-denda eta jarduera didaktikoak egiteko tailerrak dituen museo-kopurua. Ez hain ohiko ekipamenduak zerbitzu gehigarriekin lotzen dira, besteak beste, kafetegia/jatetxea eta argazkigintza-laborategiak.

## 2.3. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien ezarpena oso presente dago Euskadiko museo eta bildumetan; ekipamendu informatikoa eta web-orriak dituzte gehienek.

**21. irudia**. Museoak eta Bildumak, ordenagailuen eta webguneen arabera (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Jarduerak ikusarazteko eta horiei laguntzeko baliabidetzat web-orriak erabiltzeari dagokionez, honako museo hauek erabiltzen dute baliabide hori gutxien: etnografiakoek eta antropologiakoek (% 40k ez du) eta historikoek (% 28,6k ez du).

**22. irudia**. Museoetan eta Bildumetan web-orria izatea, tipologiaren arabera (%). 2014

| Tipologia | Web-orria duten erakundeen % |
|---|---|
| Arte garaikidea | 100,0 |
| Dekorazio-arteak | 100,0 |
| Arte ederrak | 100,0 |
| Museo-etxeak | 100,0 |
| Espezializatua | 100,0 |
| Natura-zientziak eta historia naturala | 100,0 |
| Aztarnategiak | 100,0 |
| Zientzia eta teknologia | 85,7 |
| Orokorra | 80,0 |
| Arkeologikoa | 80,0 |
| Historikoa | 71,4 |
| Etnografia eta antropologia | 60,0 |

Oinarria: 55 museo eta bilduma

Administrazio-zereginak betetzea da museoetako azpiegituretan ekipamendu informatikoaren erabilerarik hedatuena, eta, gero, Internetera sartzeko leihoa eta bisitarientzako informazio-bide gisa. Neurri txikiagoan, bide gisa erabiltzen da funtsen inbentarioa egiteko (% 70 inguru).

**23. irudia.** Ordenagailuaren erabilera Museo eta Bildumetan (%). 2014




Oinarria: 58 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Museoetako webguneen helburuen artean, bisitariei oinarrizko informazioa ematea da erabilera nagusia (helbidea, programazioa, ordutegiak, tarifak etab.). Erabilgarritasunari dagokionez, bigarren mailan museoko bisitariarekiko komunikazioa legoke (helbide elektronikoa) bai, halaber, ikastetxeei, familiei eta abarrei hezkuntza-jarduerak eskaintzeko lanabesa . Beste zerbitzu batzuek, besteak beste, onlineko zerbitzuek (denda, liburutegirako sarbidea) eta onlineko sarreren salmentek, oraindik ez dute garapen argia museoetan.

**24. irudia**. Museoei eta Bildumei buruzko web-orrien helburuak (%). 2014




Oinarria: 55 museo eta bilduma (erantzun anitza)

# 3. SARRERA

Kapitulu honetan, Museoen eta Bildumen egungo egoera xehe-xehe aztertuko dugu, irekitzeko ordutegiari, sarbideari edota salneurriei dagokienez.

## 3.1. JENDEARENTZAKO IREKITA EGOTEN DIREN EGUNAK ETA SARRERA-MOTA

Ikerketan parte hartu duten museo eta bilduma gehienek ateak etengabe irekitzen dituzte, alegia, urteko hilabete guztietan, asteko egunen bat kenduta. Urtean, guztira, museoen % 80 inguruk 300 egunetik gora irekitzen du.

**25. irudia.** Museoak eta Bildumak, jendaurreko irekitze-modalitatearen arabera (%). 2014




Oinarria: 61 museo eta bilduma

**26. irudia.** Museoak eta Bildumak, urtean irekitako egun-kopuruaren arabera (%). 2014




Oinarria: 61 museo eta bilduma

Museo guztiek eskaintzen dute sarrera librea beren instalazioetara, salbu eta ikerketetan parte hartzen duen museo batek, bisitari-mota jakin bati mugatuta baitauka sarbidea (ikertzaileak, taldeak...).

**27. irudia.** Museoetan eta Bildumetan sartzeko moduak (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Hala ere, museo-kopuru ugaritan (% 48,4), beharrezkoa da aurretiko eskaera bertara sartzeko, batez ere taldeen kasuan (% 70) eta, neurri txikiagoan, kasu guztietan (% 30).

**28. irudia.** Museo eta Bildumak ikusteko aldez aurretiko eskaera (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

## 3.2. SARRERAREN EZAUGARRI EKONOMIKOAK

Kultura-azpiegitura hauetako gehienetara sartzeko sarrera ordaindu behar da eta % 22,6 baino ez dira doan.

**29. irudia**. Museoen eta Bildumen sarrera-mota (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Ikerketan parte hartu duten arte garaikideko, tokian tokiko museo eta bilduma eta museo-etxe guztiek dute tarifadun sarrera (inon ez doako sarrera).

**30. irudia**. Museoen eta Bildumen tarifa-mota, tipologiaren arabera (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Sarrera kobratzen duten museoen artean, hainbat tarifa-tipologia aurki daitezke, bisitari-ezaugarrien arabera. Ia hamar erakundetatik zazpik tarifa osoak eskaintzen dituzte (oinarrizko tarifa, tarifa berezidun erakusketa tenporalak sartu gabe). Ohikoa da, halaber, talde jakin batzuei tarifa murriztuak edo doakoak eskaintzea ere. Neurri txikiagoan, pase bereziak eskaintzen dira (bonoak, paseak, txartelak).

**31. irudia**. Sarrera ordaindua duten Museoen eta Bildumen tarifa-mota (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Doako tarifa eskaintzen duten Museo eta Bildumak, batez ere, haurrei zuzenduta daude, kasuen % 80an. Tarifa murriztuen aplikazioa batez ere talde, ikasle eta adinekoei zuzenduta dago. Neurri txikiagoan, prezio ekonomikoagoak aplikatzen zaizkie haurrei edo desgaitasunen bat duten pertsonei.

**32. irudia**. Museoak eta Bildumak, doako sarrerak eta tarifa murriztukoak balia ditzaketen taldeen arabera (%). 2014




Oinarria: 38 museo eta bilduma (erantzun anitza)




Oinarria: 41 museo eta bilduma (erantzun anitza)

# 4. MUSEOEN JARDUERAK

Kapitulu honetan, Euskadiko museo eta bildumen analisia jaso da, bisitari-kopurua, erakusketak, argitalpenak eta erakunde horiek sustatzen dituzten beste jarduera batzuk kontuan izanda.

## 4.1. MUSEO ETA BILDUMETAKO BISITARIAK

Ikerketan parte hartu duten museo eta bildumek emandako informazioaren arabera, 2014. urtean, guztira, 2.540.154 bisitari izan dira euskal museoetan, eta 40.744 da, batez beste, museo bakoitzeko pertsona-kopurua.

**33. irudia**. Museo eta Bildumetako bisitari-kopurua Lurralde Historikoaren arabera, bisitariak guztira eta batez bestean kontuan hartuta (% eta balio absolutua). 2014




Oinarria: 61 museo eta bilduma

Bisitarien kopurua aldatu egiten da, lurraldearen aldagaia kontuan hartuta. Bizkaia, museoen azpiegitura gehien duen lurraldea ez den arren, bisitari-kopuru handiena hartzen duen Lurralde Historikoa da, bolumen osoaren % 60 inguru. Museo bakoitzeko bisitarien batez bestekoa gainerako lurraldeetakoa baino askoz ere handiagoa da: 70.256 Bizkaian, 30.555 Gipuzkoan eta 14.890 Araban.

Arte garaikidearen tipologian kategorizatutako museo eta bildumek bisitari guztien % 45 inguru hartzen dute. Ehuneko handi horretatik urrunduta, garrantziari dagokionez bigarren mailan, gai orokorren inguruko museoak daude (% 17,4). Bisitari-kopuru txikiena hartzen duten espazioak museo-etxeak, natura-zientziakoak eta historia naturalekoak, etnografiakoak eta antropologiakoak eta dekorazio-artekoak dira.

**34. irudia.** Museo eta Bildumetako bisitari-kopurua, tipologiaren arabera (balio absolutua eta % ). 2014

| Tipologia | Aurreikusitako bisitari-kopurua | Guztizkoaren gaineko %-a |
|---|---|---|
| Arte garaikidea | 1.105.123 | 43,5 |
| Orokorra | 444.167 | 17,4 |
| Zientzia eta teknologia | 246.045 | 9,7 |
| Arte ederrak | 229.808 | 9,0 |
| Espezializatua | 228.069 | 9,0 |
| Historikoa | 76.130 | 3,0 |
| Aztarnategiak | 55.437 | 2,2 |
| Arkeologikoa | 54.924 | 2,2 |
| Museo-etxeak | 34.653 | 1,4 |
| Natura-zientziak eta historia naturala | 27.071 | 1,1 |
| Etnografia eta antropologia | 25.115 | 1,0 |
| Dekorazio-arteak | 13.612 | 0,5 |
| GUZTIRA | 2.540.154 | 100,0 |

Oinarria: 61 museo eta bilduma

Lurralde Historiko bakoitzeko aurreikusitako parte-hartzaileen kopuruaren analisi xehatuagoa eginda, honako emaitza hauek ditugu:

- **Araban**, bisitarien % 70 inguru bi motatako museotan kontzentratzen da, arte garaikidekoan eta espezializatuan.
- **Bizkaian**, bisitari gehienak arte garaikideko museoen inguruan biltzen dira.
- **Gipuzkoan** dago bisitarien banaketa handiena; zehazki, zientzia eta teknologiakoetan, espezializatuan eta orokorrean.

**35. irudia.** Museo eta Bildumetako bisitari-kopurua, tipologiaren eta Lurralde Historikoen arabera (balio absolutua). 2014

| Tipologia | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Arkeologikoa | 9.136 | 14.226 | 31.562 | 54.924 |
| Arte garaikidea | 93.760 | 1.011.363 | / | 1.105.123 |
| Dekorazio-arteak | 5.560 | 8.052 | / | 13.612 |
| Arte ederrak | 19.359 | 210.449 | / | 229.808 |
| Museo-etxeak | / | / | 34.653 | 34.653 |
| Zientzia eta teknologia | / | 29.974 | 216.071 | 246.045 |
| Natura-zientziak eta historia naturala | 8.130 | / | 18.941 | 27.071 |
| Aztarnategiak | / | 23.365 | 32.072 | 55.437 |
| Espezializatua | 30.754 | 92.761 | 104.554 | 228.069 |
| Etnografia eta antropologia | 11.981 | 6.795 | 6.339 | 25.115 |
| Orokorra | / | 18.287 | 425.880 | 444.167 |
| Historikoa | / | 60.106 | 16.024 | 76.130 |
| GUZTIRA | 178.680 | 1.475.378 | 886.096 | 2.540.154 |

Oinarria: 61 museo eta bilduma

2014ko estatistikan parte hartu duten museo eta bildumen % 80 inguruk atzerriko bisitariak hartu ditu. Erakunde horiek emandako datuen arabera, guztira, 890.586 bisitari atzerritar izan dira, alegia, Euskadiko kultura-espazioak bisitatu dituzten pertsona guztien % 35,1.

**36. irudia**. Atzerriko bisitariak izan dituzten Museo eta Bildumak (%). 2014




Oinarria: 61 museo eta bilduma

**37. irudia**. Bisitarien banaketa, nazionalitatearen arabera (%). 2014




Oinarria: 61 museo eta bilduma

Lurraldearen aldagaiaren zifrak kontuan hartuta, Bizkaiak du kanpotarren tasa handiena, dela atzerritarren ehunekoari dagokionez, EAEko bisitari atzerritar guztien gainean (% 80,3), dela atzerritarren ehunekoari dagokionez, Bizkaiko lurraldeko bisitari guztien gainean (% 48,5). Beste muturrean Araba dago, lurralde horretako museoetan izaten baita beste herrialde batzuetako bisitari gutxien.

**38. irudia.** Museo eta Bildumetako atzerriko bisitarien kopurua, Lurralde Historikoen arabera (balio absolutua eta % ). 2014

| Lurralde Historikoa | Atzerriko bisitarien kopurua | Atzerritarren % , Lurralde Historikoko bisitarien kopuru osoa oinarri hartuta | Atzerritarren % , Euskadiko bisitari atzerritar guztiak oinarri hartuta |
|---|---|---|---|
| **Araba** | 16.393 | 9,2 | 1,8 |
| **Bizkaia** | 715.221 | 48,5 | 80,3 |
| **Gipuzkoa** | 158.972 | 17,9 | 17,9 |
| **EUSKADI GUZTIRA** | 890.586 | 35,1 | 100,0 |

Oinarria: 49 museo eta bilduma

Museoetako azpiegituren tipologiari dagokionez, arte garaikideko museoek hartzen dute bisitari atzerritarren ehuneko handiena. Ehunekoa askoz ere txikiagoa da museo orokorren kasuan.

**39. irudia**. Museo eta Bildumetako bisitari atzerritarren kopurua, tipologiaren arabera (%). 2014




Oinarria: 49 museo eta bilduma

## 4.2. ERAKUSKETAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK

Ikerketan parte hartu duten museo eta bildumen hiru laurdenek aldi baterako erakusketak egin dituzte 2014an inauguratuta edo urte horretan abian jarrita. Hala ere, aldeak ikusten dira, museoen tipologiari begiratuz gero.

**40. irudia.** Museo eta Bildumetako aldi baterako erakusketak (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Aldi baterako erakusketak ohikoagoak dira arte garaikideko, arlo orokorretako eta zientzia eta teknologiako museoetan eta museo-etxeetan. Jardunbide hori ez da da horren usua dekorazio-arteen, natura-zientzien eta historia naturalaren eta tokian tokiko tipologian.

**41. irudia**. Museo eta Bildumetan egindako aldi bateko erakusketak, tipologiaren arabera (%). 2014




Oinarria: 47 museo eta bilduma

Jarduera osagarriei dagokienez, museoen % 90 inguruk beste ekimen-mota batekin konbinatzen du museoaren berezko jarduera. Egiteko osagarri hedatuena talde berezientzako hezkuntza-arloko jarduerak antolatzea da, erakundeen % 87k ezarritako jarduera. Azpimarratu beharra daude prestakuntzako eta informazioko jarduerak, hainbat formatutan emanak (ikastaroak, tailerrak, mintegiak eta jardunaldiak) baita hitzaldien hedapena ere.

**42. irudia**. Museoek eta Bildumek egindako beste jarduera batzuk (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma (erantzun anitza)




Oinarria: 55 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Jarduera hezigarrien artean, erakunde guztiek haurrak dituzte ekimen horien jomuga. Garrantziaren araberako ordenari jarraiki, azpimarratzekoak dira bai familiei zuzendutako jarduerak (erakundeen % 81,3), bai hirugarren adinekoei zuzendutakoak ere (% 66,7). Desgaitasunen bat duten pertsonak eta gutxiengo etnikoak dira ordezkaritza gutxien duten kolektiboak.

**43. irudia**. Museo eta Bildumetan egindako jarduera hezigarrien tipologia (%). 2014




Oinarria: 53 Museo eta Bilduma (erantzun anitza)

## 4.3. ARGITALPENAK

Ikerketan parte hartu duten museo eta bildumen % 80k argitalpenen bat argitaratu du 2014.

**44. irudia**. Museo eta Bildumen argitalpenak (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Batez ere, zabalkunderako materialak argitaratzen dira. Museo eta bildumen erdiak, gutxi gorabehera, material didaktikoak argitaratu ditu. Neurri txikiagoan, bestelakok ere argitaratu dira: gidak, aldizkako argitalpenak eta katalogo zientifikoak.

**45. irudia**. Museoek eta Bildumek 2014an argitaratutako argitalpenak (%). 2014




Oinarria: 50 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Ia museo eta bilduma guztiek egiten dituzte argitalpenak paperean. Hala ere, euskarri elektronikoak ere gero eta garrantzi handiagoa du. Hori horrela, museoen erdiak baino pixka bat gehiagok weberako euskarri elektronikoa erabiltzen du.

**46. irudia**. Museo eta Bildumek 2014an argitaratutako lanetan erabilitako euskarria (%). 2014




Oinarria: 50 museo eta bilduma (erantzun anitza)

# 5. MUSEOETAKO LANGILEAK

Kapitulu honetan, Euskadiko museo eta bildumen zerbitzura dauden giza baliabideei buruzko oinarrizko informazioa aurkeztu da; horretarako, lan-harremanari, lanbide-kategoriari, generoari eta jardunaldi-motari buruzko adierazleak aztertu dira.

## 5.1. MUSEO ETA BILDUMEI ATXIKITAKO LANGILEAK ETA HORIEN LAN-HARREMANA

Ikerketan parte hartu duten 62 museo eta bildumek emandako informazioa kontuan hartuta, 2014an, guztira, museoen jardueran lan egiten duten 744 pertsona kontabilizatu dira, alegia, 12 pertsonakoa da batez besteko plantilla.

Euskadiko museoei atxikitako ia baliabide guztiak ordainpeko langileak dira, eta nabarmentzekoak dira lan-kontratu iraunkorra duten langileak (% 51,9, eta aldi baterako lana dutenak % 10,2).

**47. irudia**. Museo eta Bildumetara atxikitako langileak, horien lan-harremanaren arabera (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Hala ere, boluntarioen ehunekoa nahiko handia da. Zehazki, langileen % 13,7k erakunderako modu altruistan dihardu lankidetzan. Erakundeko langileen % 5,4 bakarrik aritzen da ordainik jaso gabe (adibidez elizako langileak, unibertsitarioa...).

Museoetan praktikak egiten dituzten langileak direla eta, parte hartu duten erakundeen % 40 inguruk adierazi du bekadunak edo praktiketako ikasleak dituela 2014an.

**48. irudia**. Museo eta Bildumetan bekadunak edo praktiketan ari diren ikasleak kontratatzea (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

## 5.2. LANGILEEN LANBIDE-KATEGORIA

**49. irudia**. Museo eta Bildumetara atxikitako langileak, horien lanbide-kategoriaren arabera (%). 2014




Oinarria: 62 Museo eta Bilduma

Museo-jardueren kudeaketari lotutako lanpostuak Euskadiko museo eta bildumei atxikitako giza baliabideen % 69,2 dira. Kudeaketa-jardueraren barruan, lanbide-kategoriek ordena hau dute enpleguen proportzioaren arabera:

- Langile teknikoak (profesional espezializatuak, besteak beste kontserbatzaileak, zaharberritzaileak, gidak...) nagusitu egiten zaizkie gainerako lanbide-kategoriei; giza baliabide guztien % 60 baino pixka bat gehiago.
- Administrazioko langileak ere asko dira museoetako jardueraren kudeaketari lotutako enpleguen barruan, % 31 inguru, hain zuzen. Txikiagoa da zuzendaritzako lanpostuek atxikitako langileen bolumenaren guztizkoan duten pisua (ez da % 10era iristen).

Laguntzako jarduerei eta transbertsalei lotutako enpleguak (mantentze-langileak/garbitzaileak eta zaintzako/segurtasuneko langileak) museo eta bildumetako plantillen guztizkoaren % 30 inguru dira, baina azpikontratatutako zerbitzuak izaten dira gehienetan. Garrantzitsua da beste batzuen kategorian zenbatu diren langileen pisua.

Lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera museo eta bildumetara atxikitako langileen banaketaren analisiak zenbait alde ditu.

**50. irudia**. Museo eta Bildumetara atxikitako langileak, horien lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera (% horizontala). 2014

| LANBIDE-KATEGORIA | Ordaindua/ lanpostu iraunkorra | Ordaindua/ aldi baterako lanpostua | Ordaindu gabea | Langile | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Helbidea** | 77,6 | 6,1 | 14,3 | 2,0 | 100,0 |
| **Langile espezializatuak** | 59,2 | 12,7 | 8,9 | 19,1 | 100,0 |
| **Administrazio-langileak** | 86,8 | 6,6 | 2,0 | 4,6 | 100,0 |
| **Mantentze-langileak eta garbitzaileak** | 89,3 | 10,7 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| **Zaintza- eta segurtasun-langileak** | 80,0 | 20,0 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| **Beste langile batzuk** | 41,7 | 25,0 | 1,9 | 31,5 | 100,0 |

Oinarria: 62 museo eta bilduma

Administrazioko lanak egiten dituzten langileek eta mantentzerako eta garbiketarako zereginetan laguntzeko lanpostuek dute enplegu iraunkor gehien. Aldi baterako kontratazioa ohikoagoa da profesional teknikoetan eta zaintzako eta segurtasuneko langileetan. Zuzendaritzako kategorian dago museoan edo museo-bildumetan berariazko lana egiteagatik ordainik ez duen langile-kopuruaren ehuneko handiena. Langile espezializatuek eta "beste batzuk" atalean sailkatutako langileek dute langile boluntarioaren ehunekorik handiena.

## 5.3. LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA

Langileak sexuaren arabera aztertuta, giza baliabideen artean, emakumeen ehunekoa handiagoa da: % 59,5koa, % 40,5koaren aldean.

**51. irudia**. Museo eta Bildumetako langile-banaketa, sexuaren arabera (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Hala ere, aldeak nabariak dira, lanbide-kategorien analisia egiten bada. Langile teknikoak eta, batez ere, administrazio-langileak oso kolektibo feminizatuak dira. Zuzendaritzako postuetan, aldiz, genero-arraila oso handia ez bada ere, gizonezkoak apur bat gehiago dira. Gauza bera gertatzen da mantentze-lanetako langileen eta garbitzaileen kasuan. Ordea, zaintzako eta segurtasuneko langileei lotutako laguntzako postuak eta lanpostu transbertsalak oso maskulinotuak daude.

**52. irudia**. Museo eta Bildumetara atxikitako langileak, sexuaren arabera eta horien lanbide-kategoriaren arabera (%). 2014

| Lanbide-kategoria | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|
| Helbidea | 51,0 | 49,0 |
| Langile espezializatuak | 33,4 | 66,6 |
| Administrazio-langileak | 26,3 | 73,7 |
| Mantentze-langileak eta garbitzaileak | 51,8 | 48,2 |
| Zaintza- eta segurtasun-langileak | 70,8 | 29,2 |
| Beste langile batzuk | 51,9 | 48,1 |

Oinarria: 62 museo eta bilduma

## 5.4. LANALDI-MOTA

Lanaldi osoak dira nagusi kultura-jarduera honetan lan egiten duten profesionalen artean, zehatz esateko, museoetako langileen % 59,4k lanaldi osoa du.

**53. irudia**. Museo eta Bildumetako langileen banaketa, lanaldiaren arabera (% ). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Museo eta bildumetan lan egiten dutenen artean, nolabaiteko desberdintasunak nabari dira lan-kategoriaren arabera. Ikuskaritza- eta segurtasun-arloetako langile ia guztiak lanaldi osoz aritzen dira. Halaber, garrantzitsua da zuzendaritzako eta administrazioko langileek lanaldi osoz duten kontratazioaren ehunekoa. Aitzitik, lanaldi partzialak ohikoagoak dira mantentze-lanetan eta garbiketan aritzen direnen artean, baita langile espezializatuen kasuan ere.

**54. irudia**. Museo eta Bildumetara atxikitako langileak, lanaldi-motaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2014

| Lanbide-kategoria | Lanaldi osoa | Lanaldi partziala |
|---|---|---|
| Helbidea | 71,4 | 28,6 |
| Langile espezializatuak | 50,3 | 49,7 |
| Administrazio-langileak | 70,4 | 29,6 |
| Mantentze-langileak eta garbitzaileak | 51,8 | 48,2 |
| Zaintza- eta segurtasun-langileak | 98,5 | 1,5 |
| Beste langile batzuk | 45,4 | 54,6 |

Oinarria: 62 museo eta bilduma

# 6. DATU EKONOMIKOAK

Kapitulu honetara, aztertutako erakundeen informazio ekonomikoari buruzko laburpena ekarri dugu, labur, zehazki, museoetako jardueren ondoriozko gastuetatik eskuratzen diren diru-sarrerei eta finantzaketari buruzkoa.

## 6.1. FINANTZAKETA ETA SARRERAK

Euskadiko museoen % 88,7k zenbait finantzaketa-iturri ditu, eta, gehienetan, hiru bide konbinatu ohi ditu: sarrera propioak, sektore publikoko sarrerak eta ekarpen pribatuak.

Bi finantzaketa-iturri dituzten erakundeen kasuan, sarrera propioak eta diru-laguntza publikoak dituztenak dira nagusi. Finantzaketa-iturri bakarra duten museo eta bildumen artean, sarrerak diru-kutxa publikotik jasotzen dituztenak dira nagusi.

**55. irudia**. Museoen eta Bildumen finantzaketa-iturriak (%). 2014




Oinarria: 62 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Museo eta bildumek sortutako diru-sarrera propioak bi bide ekonomikoren konbinaziotik datoz: espazioetara sartzeko sarreren salmentatik eta beste sarrera batzuetatik –hala nola denda propioetan saldutako produktuetatik, beste salmenta batzuetatik etab.–.

**56. irudia**. Museoek eta Bildumek sortutako diru-sarrera propioak (%). 2014




Oinarria: 39 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Administrazio publikotik datorren dirua jasotzen dutela baieztatzen duten museo eta bildumen finantzaketa-iturri nagusia toki-administrazioaren diru-laguntzak (% 83,7) dira eta, gero, autonomia-erkidegoko administrazioarenak (% 62,8). Neurri txikiagoan, estatuko edo erkidegoko finantzaketa-iturriak erabiltzen dira.

**57. irudia**. Museoen eta Bildumen finantzaketa-iturri publikoak (%). 2014




Oinarria: 43 museo eta bilduma (erantzun anitza)

## 6.2. MUSEO ETA BILDUMEN GASTUAK

Ikerketan parte hartu duten erakundeen datuak kontuan hartuta, 61.013.561 milioi euroko gastuak kontabilizatu dira 2014. urtean. Gastu-iturri nagusia ondasun eta zerbitzuen ohiko gastuei lotzen zaie (hornidurak, energiaren kontsumoa, errentamenduak, zergak, kontserbazioa eta konponketa arruntak...), eta gastu guztien % 65,9 dira. Bigarren mailan, museoaren zerbitzura dauden langileek sortutako urteko ordainsarien gastuak daude, alegia, % 28,6.

**58. irudia**. Museoen eta Bildumen gastuak (%). 2014




Oinarria: 46 museo eta bilduma

Aurrekontu osotik, % 5,5 baino ez da bideratzen inbertsioen gastura. Inbertsiorik orokorrenak erakunde hauetan batez ere eraikinean bertan hobekuntza-lanetarako bideratzen dira. Neurri txikiagoan bideratzen dira inbertsioak beste gastu batzuetarako (lursailak, ondasun higiezinak edo ondasun higiezin inbentariagarriak...).

# 7. MUSEO-FUNTSAK

Kapitulu honetan, museo eta bildumek 2014an eduki dituzten museo-funtsen inguruko datu nagusiak aztertuko ditugu.

Ikerketan parte hartu duten museoek eta bildumek 815.633 museo-funts dituzte guztira; horietatik, % 99,1 museoen beren bilduma egonkorrak dira[1]. Gainerakoak beste erakundeei edo partikularrei dagozkie (horiek erakunde horietan egoten dira).

**59. irudia**. Bildumaren beraren museo-funtsak edo beste erakundeei dagozkienak (%). 2014




Oinarria: 57 museo eta bilduma

Bilduma egonkorraren funtsen sailkapena kontuan hartuta, parte hartu duten museo eta bildumen ehuneko handiena beste gai batzuetan sailkatu dituzte gaiaren arabera (% 76,2). Artea eta etnografia eta antropologia daude funtsik gehien duten gaien artean.

**60. irudia.** Museo-funts egonkorrak, gaiaren arabera sailkatuta (%). 2014

| Gaia | % |
|---|---|
| Artea | 6,8 |
| Etnografia eta antropologia | 5,6 |
| Natura-zientziak | 3,6 |
| Zientzia eta teknologia | 3,4 |
| Historia | 2,0 |
| Arkeologia | 1,3 |
| Dekorazio-arteak | 1,1 |
| Bestelako gaiak | 76,2 |

Oinarria: 57 museo eta bilduma

Kontabilizatutako funtsen guztizkotik, % 70,6 natura-zientzien eta historia naturalaren museoetan daude. Ondoren daude, oso urrun, museo espezializatuak (% 9,3) eta orokorrak (% 7,2).

1. Bilduma egonkorrarekin honako hau adierazi nahi da: erakunde titularrek museoari esleitutako kultura-ondasunen multzoa, museo publiko bat bada; eta museoaren titular den erakundearen edo pertsona fisikoaren jabetzako kultura-ondasunen multzoa, museo pribatu bat bada.

**61. irudia**. Museo-funts egonkorrak, Museo edota Bildumaren tipologiaren arabera (%). 2014




Oinarria: 57 museo eta bilduma

Euskadiko museo eta bildumen % 77,4k jendaurrean ditu ikusgai museoetako funtsak. Erakunde horien artean, % 41,7k funtsen % 25 baino gutxiago du ikusgai eta % 39,6k artelanen % 75etik gora.

**62. irudia**. Jendaurrean jarritako funtsak (%). 2014




Oinarria: 57 museo eta bilduma




Oinarria: 48 museo eta bilduma

1. Bildumako funtsak sailkatzeko gainerako tipologiak hauek dira: arkeologikoa; museo-etxea; arte garaikidea; dekorazio-arteak; tokian tokikoak.

# 8. 2014KO ESTATISTIKA-ADIERAZLEEN LABURPENA

**Euskadiko museoen eskaintzak presentzia handiagoa du Gipuzkoan**

- 62 museo eta bildumetatik, Gipuzkoak du kultura-azpiegituren % 46,8. Bizkaia dago gero, azpiegituren % 33,9rekin, eta, azkenik, Araba, % 19,4rekin.

**Kultura-ondare jakinetan espezializatutako museo eta bildumen nagusitasun argia**

- Museo eta bilduma espezializatu gehiago dago Euskadiko kultura-sarean; museoetako eskaintzaren guztizkoaren % 25 dira. Garrantziaren araberako ordenari jarraikiz, zientzia eta teknologiarekin lotutako azpiegiturak eta museo eta bilduma historikoak nabarmendu behar dira.

**Titulartasun publikoko profila duten museoen presentzia handiagoa**

- Euskadiko museo eta bildumen % 61,3 titulartasun publikokoa da, eta nabarmentzekoa da horien artean, figura juridiko gisa, toki-administrazioa. % 32,3k titulartasun pribatua du (batez ere fundazioak), eta kasuen % 6,5ean bakarrik partekatzen dute titulartasuna erakunde publikoek eta pribatuek.

**Museoetako erakundeen kudeaketa nagusia erakunde pribatuek egiten dute**

- Titulartasunarekin ez bezala, kudeaketa pribatuko modalitatea museoetako erakundeen erdiak baino gehiagok erabiltzen du, eta azpimarratzekoak dira horien artean fundazioak, antolaketa-jarduera horiek egiteko erakunde nagusi gisa. Jardueren kudeaketa publikoa duten erakundeen ehunekoa ere handia da (kasuen % 43,5).

**Euskadiko museoak ireki diren urteetatik ibilbide garrantzitsua**

- Museoen sektorearen zati handi bat azken 25 urteotan eratu da, % 16,1 sortu berriak (10 urtetik behera) eta % 50,0 duela 10 eta 25 urte ireki zen. Hala ere, museoen %35ek 25 urtetik gorako antzinatasuna du. Erakundeen batez besteko adina 30 urte dira. Gipuzkoak du eraketa-profil berriena, 20,1 urteko batez besteko antzinatasuna baitute museoek.

**Batez beste 3.239 metro koadroko azalera du guztira**

- Azpiegitura bakoitzaren batez besteko azalera 3.239 $m^2$-koa da. Museoetarako erabilitako azalera osoaren datu metatua kontuan hartuta (191.130 $m^2$), herritarren arabera, museoaren azalera 88 $m^2$-koa da Euskadin, 1.000 biztanleko.

**Zerbitzu- eta ekipamendu-mota ugari, kalitatezko zerbitzua eskaintzeko**

- Euskadiko ia museo eta bilduma guztiek dituzte, zerbitzu gisa, instalazioetara doazen bisitarientzako bisita gidatuak, erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa eta bestelako informazio osagarria –liburuxkak eta abar–. Ekipamenduak direla eta, informazio orientatzailea dago aretoetan (panelak, etab.) eta irisgarriak izaten dira desgaitasunen bat duten pertsonei begira.

**Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak jarduerak ikusarazteko eta horiei laguntzeko bide gisa**

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien ezarpena oso altua da Euskadiko museo eta bildumen artean; gehienetan, ekipamendu informatikoa dago, eta horien erabilera nagusia administrazioko egitekoak dira, bai eta web-orrialdeak ere, horiek, batez ere, bisitariei oinarrizko informazioa emateko direla.

**Kultura-azpiegituren % 80 inguruk sartzeko tarifa du**

